



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Pasaia, 2024eko maiatzaren 22a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela “**KostaSystem kostaldeko bideometriko estazioen parkea integratzeko Data Center teknologiko bat ezartzeko**” zerbitzu bat kontratatzeko.

Helburua hau egiteko hornitzailea hautatzea da:

- KOSTASystem bideometria estazioek sortutako informazioaren ezaugarrietara egokitutako datu zentro bat prest jartzea.
- Estazio pilotuak integratzea eta KOSTASystemeko oinarrizko produktuen eta produktu aurreratuen kudeaketa baliozkotzea.
- Egungo sarea (25 estazio) kudeaketa sisteman integratzea.

Lizitazio honen testuingurua “OARSOALDEA_HUB Behaketa ozeanografikoko zerbitzu proiektuen eskalagarritasuna eta Deskarbonizazio Zentroa - 2024” proiektuan kokatzen da (AZTI barne erref.: IM-24-OODEsCOaHu), (Eusko Jaurlaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren DDESyMA programa - Dirulaguntza izenduna (2024)), zeinak Oarsoaldea Urdina poloaren garapena kapitalizatu nahi duena, kostaldeko behaketaren eta itsas sektoreak deskarbonizatzeke ekimenen inguruan enpresa zerbitzuak eta aukerak eskalatzeko.

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Ebazpena ematen denetik datu zentroa ezartzeko epea amaitzen den arte 2024an gauzatu beharreko zerbitzurako **6 hilabeteko iraupena** aurreikusten da.





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Eskaintza ekonomikoa eskaintako zerbitzu guztiak aintzat hartuta baloratuko da.

Gehieneko eskaintza ekonomikoa, kontzeptu guztiak barne, **berrogei mila euro da (40.000,00 €)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa bi ziurtagiritan egingo da: proiektua hasi eta hilabete baten buruan, eskaintako prezioaren %50, eta gainerako %50a kontratua amaitzean.

Fakturak jaulki eta 60 egunera ordainduko dira.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%40
Hobekuntzak	%5
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Alaitz Lizasori aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak alizaso@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2024eko maitzaren 29ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute informazio tekniko gehigarria jasotzeko:

AZTI

Norentzat: Anna Rubio

Tel. 34 667 174 424

Mail: arubio@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikari eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.
Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jarduerari buruzko dokumentazioa, etab.)
- Alderdi bakoitzak bere titulartasunari eutsiko dio, bai eta jabetza intelektual eta industrialaren ustiapen eskubideei ere, produktuaren (softwarea, algoritmoa, hardwarea, plataforma digitata, ...), zerbitzuaren (aholkularitza, digitala, ..) edo konponbideen (digitalak, software-plataforma, programak ...) garapenean egiten duen ekarpenari dagokionez. Ustiapen eskubide horiek guztiak lehenetsiko dira, hautatutako erakundearekin sinatzen den eta lizitazio honetan ezarritako baldintzekin gatazkan jar daitekeen geroko edozein akordioaren gainetik. Era berean,



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

lizitazio honetan sortutako emaitzak zabalduz gero, AZTIk asmatzaileen egiletza aitortuko du.

- Hautatutako erakundeak ezin izango du lizitazio honetan sortutakoaren antzeko lehia sistemarik ustiatu edo garatu.
- Hautatutako entitateak konpromisoa hartzen du entitate lizitazaitzaileak partekatutako informazioaren konfidentzialtasuna zaindu eta sekretu profesionala gordetzeko, eta, beraz, ez dizkie hirugarren pertsonari jakinaraziko edo komunikatuko lizitazio honen garapen teknikoan laguntzeagatik ezagutzen dituen eta eskuratzen dituen datuak, ez lizitazioaren aurretik, ez bitartean, ez eta bukatutakoan ere.
- Konfidentzialtasun betebeharra eta informazio konfidentziala ez erabiltzeko betebeharra ez da iraungiko zerbitzua betetzen denean, eta indarrean jarraituko du harik eta informazio konfidentziala jabari publikokoa den arte, tartean, erakunde esleipendunak betebeharrak bete gabe uzten baditu izan ezik.

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzen eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

AZTI itsas eta elikagaien ikerketan aditua den zentro teknologiko bat da, arrantza eta elikagaien sektorearen garapen sozial eta ekonomikoarekin konprometitua. Itsas ikerketaren sektorean, AZTIren erronka da gure ingurunearen garapen jasangarria lortzea, eta, horretarako, kostaldea eta itsas ingurunea ikuspegi integratu batetik aztertu eta ezagutza hori ematen da (itsas ingurunearen ezaugarri fisiko, ekologiko eta sozioekonomikoak eta horien interakzioak), itsasertzaren kudeatzaileei eta erabiltzaileei erabakiak hartzen laguntzeko.

Ildo horretan, gero eta handiagoa da dauden dinamikak eta horiek erabilerekin duten harremana sakonago ezagutzeko beharra; izan ere, harreman hori da nagusitzen dena zenbait alderdiri dagokionez, horien artean itsasoko obren eragina, hondartzen konfigurazio naturala edo uholdeak gertatzeko arriskua, baita itsasertzeko erabilera ludiko guztietarako kokalekuen eta baldintzen egokitasuna eta desegokitasuna ere.

Hala ere, kostaldeko sistema horien portaera aztertzeko, itsasertzaren dinamika ezaugarritzen duten eskala espazialen (ehunka metro zein kilometrokoak) eta denborazkoen (orduak, egunak) ondorioz, neurketa teknika klasikoak mugatuak eta oso garestiak dira. Aldiz, bideo irudien bidez neurtzeko teknikak (kostaldeko bideometria), gaur egun, eskala espazial (zentimetroetatik hasi eta kilometro askotaraino) eta denborazko (segundoetatik urteetara arte) zabal baten gaineko prozesu fisikoak deskribatzeko aukera ematen dute, duela oso denbora gutxira arte pentsaezina zena.

Kostaldeko bideometria sistema bat irudiak ikuspuntu finko batetik eta denbora tarte jakin batzuetan hartzen dituzten kamerek osatzen dute. Lortutako irudien tratamendutik ondorioztatzen diren produktuek eta informazio hori teknika fotogrametrikoen bitartez erreferentziatzeak zuzeneko informazioa ematen dute kostaldeko prozesuak ulertzeko eta jarraipena egiteko. Ildo horretan, AZTIk KOSTASystem (www.kostasystem.com) izeneko sistema propio bat garatu du.

Bideometria sistema horiek emandako informazioak Laja hondartzan gaineko ezagutza eta egiten diren erabileren kudeaketa hobetuko du, herritarrei begirako informazio erabilgarria sortuko du eta, era berean, denbora eskala zabalago batean, itsasertzeko dinamika arautzen duten prozesuei buruzko informazioa emango du, balio handikoa, ezagutza zientifikoari dagokionez.

Eskakizun tekniko espezifikokoak:

KostaSystem motako kostaldeko bideometriako 25 estazio arteko parkea integratzeko Data Center teknologiko bat ezartzeko zerbitzua ematea eskatzen da, bakoitza 2/3 kamerako konfigurazio arruntagoarekin.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Elementu hauek jaso beharko ditu:

- Gutxienez 14 TB biltegitratzeko azpiegitura (segurtasun kopien sistema barne).
- 2 PC, (Linux sistema eragilea, gutxienezko prestazioak: 4 CPU, 8 GB RAM, 240 SSD, Gigabit Ethernet) bat biltegia eta kopiak kudeatzeko, eta bestea ikuskatzeko eta web serverrerako.
- Prozesamendurako azpiegitura, produktu aurreratuak sortzeko (Windows sistema eragilea, gutxienezko prestazioak: 8 CPU, 16GB RAM, 240GB SSD, Gigabit Ethernet).
- Interneterako konexioa: IP finkoa duten 1Gbps simetrikoak eskaintzen dituen zuntz optikoko linea.
- Biltegitratzeko, prozesatzeko eta bistartzeko azpiegitura martxan jartzeko zerbitzua.
- Estazioen egoera, datuen fluxua eta Data Centerraren eraginkortasuna denbora errealean kontrolatzeko sistema martxan jartzeko zerbitzua.
- Estazio pilotuak integratzea eta KOSTASystemeko oinarrizko produktuen eta produktu aurreratuak kudeaketa baliozkotzea.
- Egungo sarea (25 estazio) kudeaketa sisteman integratzea.
- Negozio Plan bat ematea KOSTASystem Data Centerrerako, honako hauek jasoko dituenak:
 - o Datu zentroaren mantentze prebentiboa eta zuzentzailea
 - o Estazio integratu guztien egoera operatiboaren eta irisgarritasunaren eguneroko berrikuspen sistematikoa.
 - o Gorabeherak eta matxurak gertatzen direnean zuzenean jardutea.
 - o Zerbitzua berrezartzeko jardueren koordinazioa.

Baloratuko dira:

- Ekipoen arkitekturaren xehetasuna.
- Exekuzio plan xehatua.
- Data Centerra eta KOSTASystem estazio sareko datu fluxua kudeatzeko jarritako ekipo teknikoa.
- Data Centerraren, estazioen eraginkortasunaren eta datu fluxuaren mantentze lanak eta kudeaketa hobetzeko proposamenak.